

Elbereth Fernandez Oyarbide

A maila • **Aipamena**

Elbereth Fernandez Oyarbide naiz, 17 urteko ordiziarra. Urdaneta ikastetxean eman nituen ikaskuntzan lehen urratsak eta aurten batxilergoko ikasketak amaituko ditut Oianguren institutuan.

Txikitatik izan naiz literaturaren zale amorratua, liburuak egunerokotasunetik ihes egiteko leiho izan ditut. Bertatik sartzen den haize freskoaren, beroaren eta argiaren nahasketak oilo-ipurdia sorrarazten dit eta liburuaren irekigunea den leihoak hori du ederra, orria irekitzean ez dakizula zer sartuko den. Gehienbat irakurketan zentratu izan ohi naizen arren, lehiaketa hau aukera paregabea iruditu zait nire idazteko eta pentsamenduak adierazteko gaitasuna lantzeko. Nire olerkian bakardadearen gaia jorratu nahi izan dut, bai eta sentimendu horretatik itzuri egiten laguntzen digutenen garrantzia ere. Espero dut zuen gustukoa izatea eta nire olerkiaren leihoetako hitz epelen haizea sumatzea.



BEGIRADAK

Gela jendez gainezka,
baina bakarrik sentitzen naiz.

Bai, bakarrik,
bakardadearen lurrunean su bila noraezean.

Galdetu diot neure buruari:

Nola,
nola da posibe hori?

Hogeita hamar musuko,
hirurogei begi,
denak nire inguruan
hara eta hona eta halaber, inor ez dabil.

Ez dut linternarik antzematen,
buruan zer argi darabilten
nik ezin jakin.

Hutsik sentitzen naiz, beltz, ilun, beste enborreko ezpal,
ezpal herdoila, zikina.

Gutxietsia, estalia sentitzen naiz.

Gelan ibiltzen hasi eta

bat-batean,
beroa, bizia!
Nire begiek egin dute
bererarenekin topo.
Ezti koloredun izpiek
harrapatu naute, sareak sardinak bezala.
Ezti koloredun karameluek,
umeldu naute, gozatu naute;
kuleroak gaseosa eginda daude.
Berotasunak bere begietan lardaskatu nau, ez dut ihesbiderik
Baina, jada ez nago bakarrik.

Orduan ulertu dut,
pertsonek hitzek ez,
begiraden ziztadek
bizirik sentiarazten gaituztela.
Jendez inguratuta egoteak
ez duela laguntzaren nahiz onespeneraren
altzoa bermatzen.
Begirada huts asko baitago.

Gehiegi!

Zentzumenak korapilatzen dituen
begiradaren aurrean,
hitzak soberan.
Begiradak baitira askoren esanetan
gure arimaren ispilu.
Eta ze arrazoia duten!
Barrez hesteak botatzean,
ezpaineekin zimurra luzatuz.
Kopeta lainotzen zaigunean,
begitik barnealdeko uholdea hustuz.

Nekeza da ordea.
Zaila, besteen begiradaren
txinpartak irakurtzea, konplizitatea aurkitzea.
Are gehiago honek iraunaraztea, goritzea.
Horregatik,
Zaindu ditzagun ezti koloredun begiak;
eta bereziki, sentitu,
poz zein atsekabe,
horrek ematen baitigu bizia.